

Aretxaga

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABAETA

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaeta • 1999ko irailak 1 • 173. zka.



Andra Mari etorri deila sarri

Jai Egitarauak • Kartelak • Kalendarioak • Liburuak • Folletoak • Errifak • Pegatinak • Gabonetako postalak • Fakturak • Albaranak • Tarjetak • Sobreak
Jai Egitarauak • Kartelak • Kalendarioak • Liburuak • Folletoak • Errifak • Pegatinak • Gabonetako postalak • Fakturak • Albaranak • Tarjetak • Sobreak
Jai Egitarauak • Kartelak • Kalendarioak • Liburuak • Folletoak • Errifak • Pegatinak • Gabonetako postalak • Fakturak • Albaranak • Tarjetak • Sobreak

EGUZKIGRAF
inprimategia



 KOOP. E.
S.COOP.

Tfnoa.: 943 79 18 44
 Faxa: 943 79 29 41
 E-mail: info@eguzkigraf.com

Araba Ibilbidea
 20550 ARETXABALETA
 Industriaidea F-0-4

UDAL EUSKALTEGIAK
 ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ

MAITASUNA
 KOMUNIKAZIOA
 LANA
 KULTURA
 AISIALDIA



 UDAL
EUSKALTEGIAK

**1999-2000 IKASTURTEKO
 EUSKARA IKASTAROAK**

Eskaintza

Euskalduntze,
 alfabetatze maila guztiak,
 EGA.

Mintzarena lantzeko talde bereziak.
 Sakontze ikastaroak.

Erritmoak

Eskarien arabera, erritmo desberdinak
 eskain daitezke. Galde ezazu!

Bulego ordutegia

Goizez 09:00-13:00 • Arratsaldez 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 1etik 22ra.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu

16 urtetik goarakoentzat.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

ARETXABALETA
 Nafarroa, 2-4
 Tel.: 943 79 21 68

ESKORIATZA
 Fernando enparantza
 Tel.: 943 79 21 68



Andramaixetako zitari hutsik egin diozu inoiz? Zer moduz pasatu duzu aurtengoan?


Iñigo Gallastegi

Urtero-urtero etortzen naiz, nahiz eta oporrak kanpoan ematen ditudan normalean. Aurten ere Galiziara joan naiz egun bazuetarako baina jaietarako itzuli naiz, eta orokorrean oso ondo pasatu dut, batez ere gaeuz. Egunik hoberena astelehena izan zen.



Felis Beltran de Heredia

Urtero etortzen gara. Aurtengo giroa oso polita izan da. Gehiago bizi izan dut egunean zeharkoa gauekoa baino; izan ere, ume txikia dugu eta... Suzko erruerak asko gustatu zaizkit eta antzerki lanen eskaintza oparoa ere aproposa izan da.



Mikel Arroiabe

Urtero izaten naiz Andramaixetan. Ez jaietako egun guztietan, baina egun bat edo birritan urtero. Aurten, bi egunetan irten naiz. Igan-dean atera nintzen, atzo atsedean hartu nuen eta gaur, asteartea, berriz nabil kalean. "Los Cinco Bilbainos" taldea asko gustatu



Maria Jesus Makazaga

Urtero izaten naiz Andramaixetan; oporrak kanpoan igaroten baditut ere, jaietarako etorri egiten naiz, eta aurten ere hori egin dut. Jaietan plaza inguruan sortu den giroa oso polita iruditu zait, umeek non jolastu izan dute.



Aitor Gabilondo

Askok gustatzen zaizkit Andramaixak, eta oporretan kanpoan egon arren ahal badut etorri egiten naiz. Orain artean hori egin izan dut. Igan-dean etorri nintzen oporretatik eta oso ondo pasatu dut orain artean. Gainera oraindik hoberena geratzen da jaiak amaitzeko, azken gaua.



Jon Arriola


Orain artean urtero izan naiz Andramaixetan. Hala ere, gero eta jende gutxiago etortzen da. Horrez gain, oso ondo pasatu dut, lehen, gaeuz ibiltzen nintzen gehiago baina aurten eguneko giroa ere bizi izan dut. Askok gustatu zait plaza inguruan sortu den giroa umeentzako jokoak direla eta.



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria



Kultura
sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltea.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609.

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta



**“Fluorizazioa urari
elementu toxiko bat
botatzea da, eta
markatutako
helburuak ez
betetzeaz gain,
herritarren osasuna
arriskuan jar dezake”**

Fluorizazioa?

Egunero ahotan darabilgun gaia da ur kontsumoarena, besteak beste ahotik edaten dugulako, eta sarritan iturriko urak dakarren zapore eskasa dela eta.

Orain urte batzuk, 88an Jaurlaritzako Osasun Sailak dekretu baten aginduz 30.000 lagun baino gehiago urez hornitzen dituen ur erakundeak, urok fluorizatzerara behartu zituen, harrezkero atxabaltarrok ur fluorizatua edan dugu eta edango dugu kontsumitzaileok inposaketa horren aurka ezer salatzen ez dugun bitartean. Jakina denez, fluorizazioaren bidez umeen hortzetako “txantxarra” (kariesa) gutxitu nahi omen da.

Fluorizazio masiboa ordea ez dator bat azken harmakadan mundu osoan zehar zabaldu den iritzi uholdearekin, izan ere fluorizazioa urari elementu toxiko bat botatzea da, eta markatutako helburuak ez betetzeaz gain (aski frogatua) herritarren osasuna arriskuan jar dezake, zenbait txostenen arabera, minbizia, bihotzekoak, arrisku genetikoak eta abar sortaraziz. Beste hainbat inposaketa masibok gizartearen onarpena jaso badute, hala nola, uren klorazioa, esnearen pasteurizazioa, bakunazioak eta abar, hau ez da

fluorizazioaren kasua, ez horixe.

Estatu Batuetan 70. hamarkadaz geroztik praktikatu dute fluorizazioa, gaur egun ordea honen efikazia eskasa eta ekar lezakeen arriskua ikusita hainbat hirik debekatua daukate fluorizazioa, Europako Estatu batzuetan gertatu den bezalaxe. Herrialde hauetan, txantxar-raren aurka, fluor-tableten (farmazian salgai) bidezko tratamendu indibiduala egitera gomendatu dute biztanleria, masiboa egin ordez, eta hemen zergatik ez?

Herritarroi horren masifikazio zailantzagari bat inposatzeko zer eskubide ote dauka Administrazioak? Urkuluko ura edaten dugun 40.000 biztanletako inori galdetu al zaio fluorizazioa nahi ote duen? Jakina ezetz.

Kontuak kontu, garaiotan oso gaitza da jendearen bizitza patxad osoa haustea, umeek goxoki-zikinkeria pila bat jaten jarraituko dute eta inoiz baino txantxar gehiago sortuko, guztiok ur fluorizatua edaten jarraituko dugu eta nik ere etxeko urarekin “topa” egin beharrean, bailara honetan dirua sobratzen denez, Errioxako ardoarekin topa egiten jarraituko dut, OSASUNA!

Josu Sarasua

ARLUTZ
TABERNA
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

URBALTZ
TABERNA
Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Andramaixak

99



Udak eman du dagoeneko hobere-
rena, Andramaixak barne. Nostalgikoak
ei garela orokorrean, eta alai bizitako
uneak bergogoratzea nori ez zaio gustatzen?
Aretxagazetako argazki kamarak betirako
harrapatu ditu horietako momentu batzuk.
Agian ez dira onenak, baina era batean
jaien muina adierazten dute. Dena den,
guk agerian gertatutakoak jaso ditugu,
izkutuan egindakoak norberak bere buruan
izango ditu.



Plaza haur eta gurasoentzako topagune bihurtu zen Andramaixetan. Bertan izandako kar, gaztelu puzgarri, Santa Fena eta abarrek txikitxoek bertan gustora asko pasatzea lortu zuten. Gurasoak ere Benidormen baleude Artanoko terrazan jarri eta lasai asko egon dira seme-alabak entretenituta egonik.



Zapatu arratsaldetik hasi ziren batzuk Andramaixetarako bidea egiten. Izan ere, argazkiotan ikusten dituzuen hauek, musarekin ekin zioten jai egitarauari. 51 bikotek hartu zuten parte txapelketan. Lehenengo saria Juan Barkero eta Juan Sanchezek osatutako bikotearentzat izan zen, bigarrena, Iker Iturrikastillo eta Aitor Izarzugazarentzat, hirugarrena Jose Luis Ijidua eta Celestino Okaranzarentzat eta laugarrena Uranga eta Mirandarentzat.



M
MEMESA
Industri hornidurak
Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA


MAPFRE
Aseguroak
Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES
• Depilazio elektrikoa
• Makilaia permanentea
• Kutisaren garbiketa
Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAJEA**
Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA



Jaiei hasiera ofiziala urtero legez 20:30ean eman zitzaien Udaletxe aurreko Ikurriñari agurra eta osteko txupinazoarekin.

Udalbatzako hainbat kide lagun zituela, Loramendiko bi dantzarik agurra eskaini zioten Ikurriñari eta ostean Anjel Bergaretxek, alkateak, pregoia irakurri eta txupinazoa jaurti zuen Udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emanez.

Eguzki izpiek majo berotu zituzten bazterrak jaietako lehenengo egun honetan, eta batek daki, akaso beroak erakarririkoa izan zen alkatearekin batera balkoian zebilen mandeulia. Geuri, behintzat, asko kostatu zaigu hemen duzuen erdiko argazkitik kanpo uztea.



Angel Bergaretxek pregoia irakurri ostean, Josu Atxagak, Udalbatzako kide gazteenak, Ikurriña atera zuen balkoira. Honen guztiaren ostean, jaiei hasiera ofiziala emana zegoen eta hortik aurrera norberaren eskuetan geratu ziren egin beharreko eta egin ez beharrekoak.





Domekan, hurrek goizean goizetik izan zuten non gozatu eta nagusiagoek non paratu. Goiko argazkian ikusi daitekeen legez, plazako platanoez gerizpe gozoa eskaini zien nagusiagoei, eta eskuineko argazkitik ondorioztatu daitekeenaren arabera, Kurtezarrira igotzen bezain ondo pasatu zuten umeez mendi puzgarria gora.



Andra Mari egunez, ohiko Meza Nagusia ospatu zen. Ohiturari jarraiki, Udaltzaria osatzen duten hainbat zinegotzi elizkizunean izan zen eta amaieran txistulariek jotako "Alkate doinua"z atera ziren udaletxerantza Atxabaltako bandera buru zutela, goiko argazkian ikusi daitekeen bezala. Eskuineko argazkian, udaletxeko atzeko atetik sartzeko unea ikusi daiteke.



GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETAK


MartiW

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

Domeka arratsaldean "Los locos años 20" antzerki taldeko kideek estuasun bat edo beste pasarazi zioten atxabaltar bat baino gehiagori argazkian ageri den gisa. Txarleston, tiro hots eta barrez bete ziren Durana eta Mitarte kale antzerki honekin eta polito animatu ginen guztiok. Suzko erruerak ez ziren gutxiagorako izan. Jende ugari bildu zen txosna ingurura Astondoia Pirotekniak jaurtitako suak ikustera eta "ohhh!" asko entzun ziren.



Trio Txarango eta zezen mekanikoa ere izan genituen Andramari egunean. Trio Txarango hiru kideetako bi Mucedades talde ezaguneko partaide ohiak dira eta talde honen hainbat kanta eskaini zituzten. Zezen mekanikoari dagokionez, ikusgarria, batez ere biraka eta saltoka hasi eta gainean zegoenaren aurpegia.




LASAGABASTER-en
AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Astelehen goizean, LXI. Leintz Bailarako Txirrindulari Lasterketa izan zen. 123 lagunek hartu zuten parte eliteko eta 23 urtez azpiko lasterketa honetan eta 66 baino ez ziren klasifikatu. Antza denez, deskalkifikazio gehienak Deskarga igotzen eman ziren. Irabazlea, Antonio Martin Kaiku taldeko Segoviarra izan zen, eta berak esandakoaren arabera, Euskal Herrian aurkitu du txirrindularitzako zaletasunik hoberena eta oso gustora aritzen da hemen. Bigarren Jorge Serriok amaitu zuen eta hirugarrena Imanol Ayestaran izan zen.

Andramaixetako astelehen honetan, Anbotoko Dama antzezlanaren zuten ikusgai umeez, eta baita zezen mekanikoa eta bolo txapelketa ere argazki hauetan ageri den bezala. Bolo txapelketari dagokionez, Unai Bengoa, Iker Atxaga, Markel Mendieta eta Igor Olalde izan ziren garaile.




IBARRA
ESTANKOA
Tabakoa eta ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

DOIKALSE
Elektroerosio lanak
Basabe Poligonoa C-1-1 Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

Izozkitekiki-Gozotegia
IZOZKITEGI
Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABAleta

JOSU HARATEGIA
Urdaitegia-Gozotegia kroasantegia
Janari prestatuak
Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08



Bai domekan bai astelehenean, afizionatu mailako bina pilota partidu jokatu ziren Iturrigorri pilotalekuan. Domekako lehenengo norgehiagokan, Laskurain eta Urberoaga 22 eta 18 gailendu zitzairen Errasti eta Txikitori. Bigarren partiduko garaipena Inurrategi eta Mikelentzat izan zen Pellizena eta Errastiri tanto bategatik irabazi ostein. Astelehenean, Muruamendiaraz eta De Luz 22 eta 11 gailendu zitzairen laniz eta Balerdiri, eta 22 eta 21 Garate eta Mitxelena Errasti anaiei.



Eskaini zituen, bai, astelehenak arrats eta gau partera beste hainbat gauza. Sokamuturra Duranan, "Los cinco Bilbainos" taldearen emanaldia, Aretxabaleto plataformak antolatutako euskal presoak Euskal Herriratzeko manifestazioa, Betagarri eta Xuia taldeen kontzertua... Hemen dituzue aipatutako ekitaldi hauetako batzuren argazkiak. Haez gain, hala ere, izaten dira bai, jai egitarautik kanpo

gelditzen diren beste hainbat gauza; guztiak ezin ekarri, baina, orriotara, Gestorek antolatutako urteroko bazkaria esaterako.





Martitzenean, Hankagorri antzerki taldea izan genuen iaz bezala gure artean. Aurtengoan, hala ere, lan berria eskaini zigun, Mukikrossa. Umeak gustora asko ibili ziren Tximist, Muki eta Babax barraskiloen lasterketa ikusten eta hauen lerde artean zer esanik ez. Bainujantzia soinean zutela mela-mela eginda amaitu zuten askok.

Jaiei amaiera ona emateko herri bazkaria baino hoberik gauza gutxi. Urtero legez, herriko plazan bazkaria izan zen, berrikuntza batekin gainera, menua. Aurtan, Valentziako jaki tipikoa dastatu ahal izan genuen, Fidegua. Primerakoa zegoen eta batek baino gehiagok errepikatu egin zuten, begira bestela ondoko argazkietan jendeak nola itxaroten duen iladan. Bazkal ostean, magia saioa izan zen Txan Handiaren eskutik eta baita futbolin txapelketa ere.



Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

**AMETS
TABERNA**


Iparragirre, 4
Tfnoa: 943 79 01 29
Aretxabaleta

**ZARAIA
TABERNA**


Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tfnoa: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta



partu zuen
nº inidiv
Egoitz
zaparrada
zan.
dute An-
tagaruren
12º gaua
beran izan
usta da
n Andra-



Jendea erakartzen duen ikuskizunik bada jaietan, hori sokamuturra da. Batzuk ikustera eta ausartenak zuzenean partehartzera, Durana kalea jendez gainezka izan zen astelehen zein asteartean. Lehenengo argazkian ikusten den bezala edozein babesleku da ona zezenaren adarrei ihes egiteko. Badira, hala ere, torero finak Atxabaltan zezenari aurre egiten ondo asko dakitenak, begira bestela eskuinaldeko argazkia.



Giro polita izan dugu orokorrean Andramaixetan, baina gauza on guztiak amaitzen direla esan ohi da eta herriko jaiekin ere gauza bera gertatzen da. Hala ere, ondo igarotakoak izan badira gaitz erdi. Gainera datorren urtekoak urruti ikusten baditugu ere berehala helduko zaizkigula seguru.



1947. urteko Andramari haiek

Andramaixak aspaldidanik ospatzen direla ezin ukatu; argazkikoei galdetu bestela. Opor osteko lehenengo ale honetan dakarkizuegun argazki hau 1947. urteko Andramaixetakoa da. Orduan ere jendeari jai giroa gustatzen zitzaion eta kalean kuadrilarekin ibiltzea. Argazkikoeak behintzat kuadrila majoa osatzen dute.

Aurreko lerroan: **Joxepita Garcia-Etxabe, Luis Bengoa, Resu Aretxaga, Victor Agirre, Rosarito Garcia-Etxabe, Vicente Etxeandia eta Arantxa Antxia.**

Atzeko lerroan: **Arantxa Garcia-Etxabe, Monserrat Bengoa, Marilu eta Dominga Oianguren.**

Argazkia eta informazioa: David Agirre

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA



CONSUM EROSKI

*Orain arrandegi
eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

Azken txupinazoa



M. J. Aretxaga

Abuztuak ere eman digu zuen guztia. Batzuk hondartzan, beste batzuk mendi aldean eta ni bezalako batzuk hementxe, herriko bazterrak zaintzen. Eskerrak tartean Andramaixak ere izan genituela. Aurtengo Andramaixetara jende asko hurbildu ez den arren, ez zaigu girorik falta izan herriko kaleetan.

Jaien bezperan, mus txapelketa izan genuen herriko plazan urtero legez. Bertan **Juan Barkero** eta **Juan Sanchez** izan genituen irabazle. Bigarren postua berriz **Iker Iturrikastillo** eta **Aitor Izarzugazak** eskuratu zuten. Bi bikoteek Andramaixei hasiera ezin hobe eman zieten. Poltsikoa beteta eta umorez gainezka.

Lehenengo egun honetan neska-mutikoentzako bolo txapelketa bat ere izan genuen. Bertan irabazleak **Unai Bengoa**, **Iker Atxaga**, **Markel Mendieta** eta **Igor Olalde** izan genituen. Horrez gain, bezperan, nagusiek ere jokatu zuten bolo txapelketa. Sailkapena honako izan zen: 1. Latasa, 2. Garay eta 3. Matias Agirre eta jubilatuetan: 1. Luis Iturbe, 2. Bixente Etxeandia eta 3. Juan Errasti. Atzetik datorkigun gazteria honekin, seguru nago bolo jokoak etorkizun oparoa izango duela.

Andramaixek aurrera egin ahala, kaleetako giroa berotuz joan zen. Herritarrok hain gustokoa dugun

sokamuturrean ere batek baino gehiagok hartu zuen parte. Leihotik begira nengoela, "Jesulin" iruditu zitzaidan. Izan ere, hain da ausarta **Egoitz Garziaetxaberen** toreatzeko modua... txalo zaparrada handiak jausi zitzaizkion Duranako zezenplazan.

Txosnek ere protagonismo handia izan dute Andramaixetan. 70. hamarkadako musika, Betagarriren kontzertua, zezen mekanikoa, "Gaur Baietz" gaua... danetik ikusteko aukera izan dugu. Ni ere bertan izan nintzen ligatzeko esperantzaz. Gauzak ikusita, datorren urteko ligatzeko gauaren zain geldituko naiz.

Pilota kontuak ere ez zaizkigu falta izan Andramaixetan. **Errasti anaiak** fin ibili ziren arren, ez zuten zorte handirik izan. Hiru partidu jokatu zituzten eta hiruretan garaipenaren atarian geratu ziren. **Errasti anaiak 21 - Garate eta Mitxelenak 22**, **Errasti eta Pellizenak 21 - Iñurrategi eta Mikelek 22**. Azkenik, **Errasti eta Txikitok 18- Laskurain eta Urberoagak 22**. Horrez gain, **Muruamendiaraz eta De Luzek 22 Iañiz eta Balerdi II 11** amaitu zuten jokaturako partidua. Pilotazaleek momentu onak igaro zituzten, apustua galdu genuenok aldiz...

Jai giroa nagusi izan genuen arren, Andramaixetan ere oroit ginen Euskal Herrian egon beharko lukeen **Keparekin**.

Abuztuaren 16an txosnetan burutu zen preso eta errefuxiatuen aldeko bazkarian, **Marsel** magoak bazkalondoa arintzen lagundu zigun. Magia erabiltzea posible balitz behingoz **Kepa** eta gainontzeko preso guztiak Euskal Herriratzeko...

Egun dexente igaro dira Andramaixak pasa zirenetik. Burua oraindik festetan daukat. Zezen mekanikoan edota ligatzeko gau zoro hartan... datorren urterarte behintzat akabo Andramaixak. Orain bakoitza berera eta danok lanera.

Okindegia - Gozologia


Aretxabaleta

Bertako okina

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta

Aretxagazetak **banatzailea** behar du aldizkaria hilean birritan banatzeko. Interesatuok 943 79 86 21 telefonora deitu, edota Aretxagazetak Durana kaleko 11. zenbakian duen egoitza pasatu.

Aretxagazeta



Yoga eta psikoterapia
(Bakarka zein taldean)

ENCARNA MENDEZ

Tfnoa.: 943 79 88 53
Mobila: 616965795

Lausitta, 11
20550 ARETXABALETA

iraila

3,4,5,6,7,8

GATZAGAKO JAIAK

Arratsaldeko 18:30ean **jaiei hasiera** emango zaie hilaren 3an, ostirala. Gaueko 12:00etan, **Iskanbila** eta **Kaos Etiliko** taldeekin **rock kontzertua**.

Larunbatean, 12:00etan, **paella lehiaketa** eta 14:30ean **herri bazkaria** izango dira. Gaueko 22:30ean **gaupasa Etzakit** eta **Basajaun** taldeekin.

Igandean, hilak 5, **1. eta 2.**

Mailako Afizionatuen

txirrindulari lasterketa izango da. Astelehena atsedean

hartzeko erabiliko dute

gatzagarrek asteartean jaiei berriz gogo biziz ekiteko eta

asteazkenean, **Otxandioko**

herritarrei egindako ongi etorri eta **Meza Santuarekin**

amaiera emango zaie jaiei. Meza 12:00etan izango da, eta bertan

Naroa Enekotegik abestuko du.



4

zapatua

ARDITXAKUR

TXAPELKETA ARAMAION

Arratsaldeko 18:00ean Arabako Arditxakur Txapelketa egingo da Aramaioko Salasango zelaian. Ekitaldi berean, Aramaioko Abeltzainen Elkarteak omenduko da.

6

astelehena

ARANTZAZURA

PEREGRINAZIOA

Goizeko 9:30ean elkartuko dira Arantzazura joango diren atxabal-tarrak. Arantzazun 12:00etan izango da **Meza Nagusia** eta 14:00etan **bazkaria** Arantzazuko ostatuan.

10,11,12

ANDRAMAIXAK

ARIENTZAN

Hainbat ekitaldi izango dira Arientzako Andramaixetan urtero bezala ostiralean hasi eta igandera bitartean. Ekitaldi horien artean, tantai jasotzea, Martin Kabarriaren zintzilikatzea, auzo afaria, dantzaldiak eta joku anitz.

12

domeka

KURTZEBARRI

EGUNA

11:30ean **meza** tontorrean eta ondoren **txanpana eta salda** banatuko du Murruxok.

AZKARATE
ARROZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

Basabe
Industrialdea C Pab.
ARETXABAleta
Tfnoak: 943 71 21 12
943 71 22 68

Aholkularitza

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

Aldiabi

943 71 20 02

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51

Mitartegari
Jatetxea

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87



ikastaroak

YOGA

Irailaren 14tik hasita, yoga eskolak emango dira urte osoan zehar Herriko Plaza 1-2. ezkerrean. Eskolak bi txandatan banatuko dira, goizez 10:00etan bata eta arratsaldez 18:45ean bestea, astean bitan, martitzen eta eguernetan. Ikastaro hauetan, osasun fisiko eta mentala bilatzeko sistemak landuko dira ariketa fisiko, arnasketa eta lasaiketaren bidez. Horrez gain, psikoterapia saioak ere eskainiko dira bai bakarka baita taldeka ere. Psikoterapia saio hauen helburua, nor bere burua hobeto ezagutu eta arazoei aurre egitea da. Interesatuak honako telefonoetara dei dezakete izena emateko: 943 79 88 53 edo 943 79 57 95.

lehiaketak

ARGAZKI LEHIAKETA

"Gazteak eta 2000 urtea" X. argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Udalak. Lehiaketa honen helburua gazteen artean argazkizaletasuna sustatzeaz gain, aurten aukeratutako gaiari buruz, "Gazteak eta 2000. urtea" ri buruz hain zuzen, hausnarketa bultzatzea da. Lanak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da eta honako helbidean aurkeztuko dira: Udaleko Gazte Zerbitzua Udaletxea 20500 Arrasate.

KONTAKIZUN LEHIAKETA

Aramaioko Udalak, Bidaiari Handien Literatur Lehiaketa barnean Sagitario Saria antolatu du. Bertan, gutxienez Europako Mendebaldera bidaiatu duen edozeinek har dezake parte euskaraz zein erdaraz. Kontakizunak aurkezteko epea irailaren 16an amaituko da eta Aramaioko Udalera bidaliko dira.



Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Andramaixetako monografikoa




Telebistako lan-kideei ere amaitu zaie dagoeneko oporraldia. Atsedena

nak ondo egingo zielakoan, ea indarberrituta datozen txanpa berriari ekiteko. Programazioari lotuz, emisioa irailaren 3an hasiko da, eta ordurako prest izango dute Andramaixen inguruko saio berezia. Ber-

tan, herriko jaietan grabatutako irudiak ikus-entzuteko aukera izango dugu iluntzeko 20:00etatik aurrera.

Saio berezi honi jarraituko dioten egunetan telebistako programazioak orain arte bezala jarraituko du martitzen eta eguakotxa emisioarekin Amagoia Lasagabaster kazetaria eta Aritz Altube teknikoaren eskutik.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Andramaixetako hirugarren egunean bazkari ostea alaitzeko Txan Handia mago izan genuen gure artean. Larrauldik etorritako mago honek magiak existitzen duela eta berarekin edozer gauza lor daitekeela erakutsi zigun. "Artxila murtxila", ikus dezagun zer kontatzen digun Xanti Anterok.

• Noiztik magia munduan eta nola?

Gurasoek taberna bat zuten eta behin bertan gizon bat magia egiten hasi zen. Ordutik nik ere magia egiteari ekin nion eta koadrilako mago pelma bihurtu nintzen. Gero behin sagardotegian geundela, gizon bat inguratu eta magia liburu bat eman zidan. Geroztik serioago hasi nintzen.

"Magian sinistuz edozer gauza lor daiteke"

• Zuk zeuk asmatzen dituzu magia jokuak?

Magia gutxi asmatzen da, normalean gehiena ikasitakoa da eta gero egokitutakoa. Liburuetatik ikasten dut gehienbat, horrez gain, Xixka magia elkartetik, Espainian egiten diren topaketetatik, atzerrira joanez...

• Magia mota asko daude?

Bai, eszena magia, komikoa, eskapismoa, ilusio haundiak, mentalismoa...

• Zuk zein magia mota egiten duzu?

Magia komikoa, inprobizatzea gustatzen zait.

• Coperfield-ek magia erabili zuen Claudia Schieffer lortzeko?

Ez, marketing mugimendu fina egin zuen.

• Zein da zure esaldi magikoa?

"Artxila, murtxila". Jose Mari Karrere Oreretako ipuin kontalariak pasatako hitzak dira. Akelarretan erabiltzen ei ziren.

• Anekdotarik?

Bueno behin neskato bat igo nuen eszenatokira eta urduritasunez pixa egin zuen. Ni ez nintzen konturatu baina publikoko neska-mutikoak barrez hasi ziren. Ni konturatu nintzenean, nik ere lehenengo aldian baten ez hirutan pixa egin nuela esan nien eta guztiak aho zabalik geratu ziren.

• Mago bat publiko barik mago izan daiteke?

Bai, buruan beti magia kontzeptua baitaukazu, ilusioa dago.

• Euskal Herrian mago asko dago?

Euskal magoak oso gutxi dira, erdal-dunak gehiago daude.

• Euskal Herri mailan bakarrik lan egiten duzu?

Bai, baina aurrera begira ateratzeko asmoa daukat.

• Zuretzat afizioa ala profesioa da?

Profesioa.

• Nongoak dira magorik onenak?

Ipar Ameriketakoak asko gustatzen zaizkit.

• Adarra jotzea asko gustatzen zaizula ikusi dugu.

Bai, ona da umore pixka bat izatea, horrek asko girotzen du emanaldia.

• Beti bakarrik aritzen zara?

Bai, orain artean bai baina gerora begira talde txiki bat sortzea da nire asmoa.

• Bukatzeko, zer esango zenioke Atxabaltako herriari?

Lehendabizi beraien jarrera goxoa eskertu gura nuke. Horrez gain, magian sinistuz edozer gauza lor daitekeela eta bihotz bihotzez "Artxila murtxila".

KOMIKIA

BALOTAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



Udako eskaintza berezia

ESCORT ■ 1.695.000 pezetatik aurrera
1.6 - 16 v.

Fiesta ■ 1.245.000 pezetatik aurrera

Mondeo ■ 2.085.000 pezetatik aurrera



- "Plan Prever" barne
- Matrikulazioa eta S.M.F. kudeaketa sartu gabe

STOCK-ean erabilgarri dauden ibilgailuen prezioak

DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO OFIZIALA

MUGARRI



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tfnoak.: 943 790744 / 943 790745

ARRITZEKO, S.L.

ARGI-EDER edifizioa



27 etxebizitza, lokalak eta garajeak
Santa Kurtz kalean • ARETXABALETA

Fueros, 26 - 5º Of. 1 • Tfnoa-Fax: 945 230408 • VITORIA-GASTEIZ

ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ** **FAGOR**

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA